

1999 URTEKO EKINTZAK

Gabon Jaun-andreok:

Lengo millurteko azken urtea igaro da, beste barri bateri asiera emoteko, eta Batzar Nagusiaren garaian oikoa dan lez, igarotako urtearen gora-beerak azaltzea dagokit; augaitik ba, ekiodan dagokidan arloari.

EUSKAL IKASTAROA

Igarotako Urrilla'n euskal ikastarorako izan-emotea asi eta oiko ikasleen kopuruaz ikasturtea asi zan, beti lez, adorerik andienaz gure izkuntza ederraren alorrean murgiltzeko. Ekintza onek beti lez poztasun andiz beteten gaitu.

EUSKAL ASTEA

Betiko oitureari jarraituz igaz be Euskal Astea ospatu genduan, baiña oraingo onetan, Eskolapiotarren ikastetxean egin bearrean, Zornotza'ko Karmeldarren Ikastetxean izan zan. Azilla'ren 8'an asita, lau egun iraun eban. Ona emen, ospakizun onetan tartekoak izan ziranak:

Latiegi tar Bixente.
Zubiri tar Iñaki
Laxaga - Murua Jaunak
Atutxa'tar Paul.
Olazar'tar Martin

Emondako itzaldiak gure aldizkarian ZER'en agertuko dira. Emendik bioako gure eskerrik beroena Zornotza'ko Karmeldarren Ikastetxeari.

IPUIN SARIKETA

Idazle barriak sortzeko, eta lengoak iraun dagien, urteko azken aldian Ipuin Sariketarako deia egin genduan, eta beti lez kopuru politik erantzun eban. Ona emen leiaketa orren sarien sailkapena:

1. Goikoetxea tar Iñaki
2. Merino tar Palmi
3. Legarreta tar Asier
4. Murua tar Jose Mari
5. Arrinda'tar Anes.

Sariak oneixek izan ziran: 50.000 - 40.000 - 30.000 - 20.000 eta 10.000 laurlekoak.

Saritutako ipuin orreik ZER gure aldizkarian agertuko dira.

EGUTEGIA

Aspaldiko oitureari jarraituz, aurtengo egutegia atondu genduan. Argitaldi au Bizkai-Bilbao kutzaren

diru-laguntzaz izan da, eta oraindiño alerik artu ez dabenak, Kutxa orren idaztegiatan artu dagikie. Egutegi onen alkartze-lana Olazar'tar Martiñ'en ardurapean izan da.

ZER ALDIZKARIA

Bizkaieraz agertzen dan aldizkari bakarra argitaratzen jarraitu dogu, eta ereti oneitan beti esaten dodana, aurtan be azaltzen jarraituko dot, eta auxe izan be: Gure bizkaiereak eriotzara galdua jarraitzen dau, erakundeen eta agintarien arduraz ziñisteziñak inguratuta. Eta abagune au ustiatuz, orain be nire didarra botaten dautset bizkaitarrai, curen euskerea il baiño len itxartu daitezen, eta danon artean berpiztuten aalegindu gaitezen, euskeraz jabetu diranen zitalkeriari aurre egiñez, eta gure asabandik artu dogun yarauntsiak gure biotz eta belarrrietan iraun dagian, orain arte egin dauan lez.

Eta barriro be esango dot, gure erakundeak "Euskerazaleak" iraun dagian arte, gure illerokoa argitaratuko dala, eta beti lez, Euzkadi'ko euskal erakundeen bizkaierarekiko jokaera kaltegarri ta ulerteziña salatuz jarraituko dau.

Eta barriro be, eskatuko dautsuet, aldizkaria zuzentzen dauan Olazar'tar Martiñ'eri zuen lanak bialdu dagiozuezala, orain arte lez.

LAGUNTZAK

Eralguntzak etenbarik gora egiten dabe, eta zuen laguntza iñoizkorik bearrekoena da. Izan be, ekintza geiago egingo gendukez, bearreko dirua izatekotan, eta augaitik beti lez, zuen urteko saria bialtzeko gogoratzen dautsuet, BBK'ko Kutxa'ren gure kontu agirira izan be. Gogoratu egizue, zuen emoitzen eñean gure egitekoak izango dirala.

Amaitu baiño len, guretzat adoregarria dan barri bat emon gura dautsuet, eta auxe izan be: Bizkai'ko Foru Aldundiaren Kultur-sailla guri geiago laguntzeko gerturik dagoala azaldu da, eta onek badirudi gure etorkia itxaropenez argitzen dauala. Onezaz gaiñera, Bilbao'ko udaletik BBK Kutxatik, eta Eusko Jaurlaritzatik oiko laguntzak jaso doguz, eta asko ez izanik be, aurrera jarraitzeko lagundu dauskue.

Eta beste barik biotzez agurtzen zaitue.

ZUBIRI'tar Iñaki
Lendakariak